

FRONTE IRAULTZAILE BATUKO MATXINOEK ATZERA EGIN DUTE FREETOWN HIRIBURU INGURUKO POSTUETATIK

Tropa britainiarrak Sierra Leonako erreboltariei erasotzeko prest daudela dio prentsak

■ *The Guardian* egunkariak argitaratutako berriagatik haserre azaldu da Erresuma Batuko Komunen Ganbera

■ Kofi Annanek, berriz, goraipatu egin du paraxutista britainiarrek kasko urdinei eman dieten babesa eta laguntza

■ Beste 600 soldadu britainiar heltzekoak ziren atzo Sierra Leonara, eta beste 2.000 kasko urdin iritsiko dira laster



ADAM BUTLER / AP

Jordaniako kasko urdinak Freetownera heltzen.

Erredakzioa / Donostia

SIERRA LEONAN dauden paraxutista britainiarrak prestatzen ari dira Nazio Batuetako operazio militarra gidatzeko eta FIB Fronte Iraultzaile Batuko matxinoei erasotzeko, *The Guardian* egunkari britainiarrak atzoko alean argitaratu zuenez. Komunikabide ugari azpimarratu zuten atzo militar britainiarrek «babes logistikoa eta koordinazioa» eskaini dietela Sierra Leonako Gobernuaren aldeko indarrei.

Erresuma Batuko Komunen Ganbera haserre azaldu zen berriagatik, eta gezurra esatea leporatu zion Gobernuari. Izan ere, Gobernuak maiz esan du han dauden paraxutistek ez dutela parte hartuko borroketan.

Downing Streetek berehala hartu zuen hitza. Defentsa Ministerioak ukatu egin zuen tropa britainiarrak Nazio Batuen misioaren zuzendaritza hartu izana eta ezein erasotan murgildu izana.

Baina hango tropa britainiarren komandante David Richardek esandakoek beste-lakoa adierazi zuten: «Epe laburrean, gure zeregina da gudan aurrera segitzea eta behar dena egitea, barnealderantz eginez».

Posizioak hartzen

■ ■ ■ Waterloo eta Masiaka herrien arteko errepidea menpean hartu zuten atzo Sierra Leonako lehendakari Ahmed Tejan Kabbahren aldeko indarrek

zuten hiriburu inguruko posizioetatik. Ondorioz, Waterloo eta Masiaka herrien arteko errepidea menpean hartu zuten Sierra Leonako lehendakari Ahmed Tejan Kabbahren aldeko indarrek. 30 kilometrotan aurrera egin zuten azken tropa gubernamentalek.

Gobernuak Sankohri leporatu dio estatu kolpea emateko saioa

Foday Sankoh FIBko lider eta Gobernuako kidea estatu kolpe «odoltsu eta bortitza» emateko ahalegina egin behar zuen aste honetan, Sierra Leonako Gobernuak atzo adierazi zuenez.

Sankoh desagertuta dago joan den astelehenetik. Etxean arrestaturik zegoen Sankoh, gerrillak berriro armak hartu zituelako su-etena hautsita. Horregatik protesta egiteko, 5.000 sierraleonar inguruk manifestazioa egin zuten eta Sankohren etxera inguratu ziren. Bat-batean, buruzagi gerrillariaren bizkartzainek tiro egin zieten manifestariei eta 19 lagun hil ziren.

Sierra Leonako fiskal nagusiak esan zuenez, herri-tarren protesta horrek eragotzi zuen estatu kolpe «odotsua».

Kofi Annan Nazio Batuetako idazkari magusia pozik azaldu zen militar britainiarrak egiten ari diren lanarekin. «Izugarrizko eragina izan dute gatazkan, ez bakarrik laguntza eman dietelako kasko urdinei, baita haien presentziak Sierra Leonako herri-tarrei segurtasuna eman dielako ere».

Kontuak kontu, 600 soldadu britainiar gehiago heltzekoak ziren atzo hara. Kasko urdinak ere 11.000 inguru izango dira laster, nahiz eta gaur egun 8.900 diren.

Freetown hiriburua lasai zegoen atzo. Gobernuaren aldeko indarrek eta Nigeriako kasko urdinek kontraerasoa egin zieten erreboltariei, eta azken horiek atzera egin

puntuz puntu

Matxinoei buruzko argibideak

■ Fronte Iraultzaile Batua (FIB) eta Nazio Batuetako kasko urdinak elkarren aurka borrokan ari dira egunotan Sierra Leonan. Hona gerrillari buruzko azalpenak:

Borrokaaren hasiera • 1991n hartu zituzten armak Sierra Leona iparraldeko «askatzeko».


Liberiako erreboltairen laguntza • Liberiako Fronte Patriotiko Nazionaleko buruzagi Charles Taylorren laguntza du FIBk. Taylorrek Sierra Leonako Gobernu ahuldu nahi du, Afrika mendebaldeko tropei laguntzen dielako, eta azken horiek Taylorren indarren aurka borrokan ari direlako.

Diamanteen garrantzia • Sierra Leona ekialdea menpean du FIBk eta hor daude diamante meategi emankorrak.

Armak • FIBk 68 tona arma ditu. Bulgariatik lortu zituen joan den abenduan.

Nazio Batuetako kideak • Duela aste gutxi Nazio Batuetako 500 inguru kasko urdin eta kide bahitu zituzten erreboltaiek. Harrezkero, kasko urdinen jantziak daramatzate soinean FIBko kide askok.

Gerrako biktimak • Bederatzi urte iraun zuen gerrak. Iazko uztailan sinatu zuten bakea Sierra Leonako Gobernuak eta FIBk. Gerra iraun zuen urteetan gutxienez 75.000 lagun hil ziren.



Ibaeta Motor, S.A.

Portuetxe, 23 (Ibaeta)
DONOSTIA

☎ 943 31 60 20 - Faxes: 943 31 61 31